AUZO BIRA

2023-2027 legegintzaldiko gobernu planaren azalpena

Hernaniko Udala

HERNANI AUZO BIRA, 2026

- Bizilagunekin bilera erronda -

ERRIBERA. BATZARRAREN AKTA

DEIALDIA	**EGUNA**	2026-01-22
	ORDUA	18:30-20:00
	TOKIA	Elizatxo

PARTE-HARTZAILEAK:

Emakumeak	Gizonak	**Guztira**
8	11	19

- Udal ordezkariak: Xabier Lertxundi, alkatea; Urko Lazkoz Fernandes, Zerbitzu publikoetako delegatua eta Aitor Lukas, Gazteria eta Partaidetza zinegotzia. Elena Calvar, partaidetza teknikaria.
- Dinamizazioan: Farapi Kooperatibatik, Gabriela Renteria eta Leire Kortajarena.

HIZKUNTZA:

Saioa euskaraz egin da, berehalako itzulpena egin zaie 3 bizilaguni.

0. AUZOZ AUZOKO SAIOEN KOKAPENA ETA AURKEZPENA

Lehenik eta behin alkateak hitza hartu du eta parte hartzaileei ongi etorria eman die. Zinegotziak eta Farapiko kideak aurkeztu eta landuko duguna azaldu du.

Farapi kooperatibak, ongi etorria eman die bertaratutako bizilagunei. Ondoren, saioaren nondik norakoak eta helburuak azaldu ditu. Halaber, hizkuntzaren erabileraren inguruko azalpenak eman ditu. Esan bezala, aurkezpenak elebitan izan dira eta hitzartzeak bakoitzak erabakitako hizkuntzan.

Amaitzeko, jardueran zehar parte hartzea nola kudeatuko den eta ordutegia zein izango den zehaztu du. Hala, Hernaniko Udal ordezkariei eman zaie hitza.

1. AURKEZPENAK

Aurkezpenari hasiera emateko, Udalak 2023-2027 Gobernu Planaren eguneraketa azaldu du.

- Guztiz beteta %51,9 (70 ekintza)
- Betetzera bidean %36,3 (49 ekintza)
- Betetzen hasi gabe %11,8 (16 ekintza)

Jarraian, herri mailan egingo diren neurri nagusiak aurkeztu dituzte:

- Kultur ekipamendu berria, lehiaketa bidez aukeratua izango dena (udara aurretik aukeratua)
- Gune tentsionatuaren izendapena, hilabete honen amaieran jasotzea espero dena. Udaletik, horrekin batera, planifikatu den 3 urteko ekintza-plana eta etxebizitza behatokiaren sorrera, etxebizitzen alokairuaren inguruko bitartekaritza.
- Plaka fotovoltaikoak jartzeko Henerkomekin egindako hitzarmena, Hernanin sortzen den energia kudeatu eta kontsumoa bultzatzeko.
- Mantentze lanetarako 2. plana (asfaltatzea). Zona honetan:
    - Marielutsetik Urbietarako malda
    - Latsunbe 4 pareko bidegorri eta aparkalekua
    - Sorgintxulotik Meaberako bidea
- Auzozaintza programa, adinekoei bideratutakoa
- Igogailua

Ondoren, bereziki Erriberako auzoei dagozkien eskuhartzeak azaldu dira:

- Aparkaleku arazoak
- Osinagako bidea
- Barandauak
- Zikuñagako barandaua eta topagunea
- Konpost guneak
- Txotx denboraldia
- Portu-Elizatxo igogailua

Jarraian, herritarrek Udalera bideratzen dituzten eskaeren inguruko azalpena eman da Udaletik. Jasotzen den eskaera kopuruak ezinezko egiten du ekarpen guztiei erantzuna ematea, batez ere epe labur batean. Hori dela eta, autokritika egin eta egungo sistemari buelta bat ematearen beharra azpimarratu da.

Honekin batera, espazio honek ematen duen aukeraz baliatuz, Udaletik martxan jarriko den inklusiorako zentroaren nondik norakoak azaldu dira: herrian gizarte egoera zaurgarrian bizi diren

12-15 lagunentzako zentroa izango da, gaur egun Udaltzaingoa dagoen tokian kokatua egongo dena. Aldundiarekin elkarlanean diseinatu den zerbitzua da, Gizarte Zerbitzuen Legeak dionari erantzuten dio.

Auzotarrek egindako proposamenen bilakaeraren berri ematea etorri da jarraian:

- Portu: aire eta zarata kutsadura, igogailua, aparkaleku arazoa, Portu-Osinaga bidea atsegina egitea
- Karabel: hondar parkea, barraken leku aldaketa, zubipe ondoko parkina, nerabeentzako gune goxoak, Balantxako tunela, eskilara mekanikoak, A15eko soinua, etxebizitza, udaltzaingoa, euskararen sustapena jaietan, kultur eskaintza auzoetara zabaltzea
- Zikuñaga: zaborra jaisterako garaian kontzientzia falta, aparkaleku proposamena, leku-zaharra Eziagoko bidearen egoera, argiteria, espaloia egokitzea igogailua jartzeko, multikirol pistako grafitiak ezabatzea, A15 azpian espaloi irristakorra
- Martindegi: AMR enpresaren isurien kontrola, auzoko ormigoizko koskak
- Elizatxo: zaborrontzi gehiago, txakur kakak, Portu-Karabeleko errepidean hartzen den abiadura, igogailua, trafikoa
- Osinaga: alokairu soziala bultzatzea, saneamendua-mugikortasuna, proiektu kulturalen proposamena

2. BIZILAGUNEN EKARPENAK

Udal ordezkarien aurkezpenaren ondoren, bizilagunei ekarpenak, zalantzak eta iradokizunak egiteko tartea eskaini zaie.

HERRI LANAK	
Pipita bidearen garbiketa	*Hortik doan bidea zikina dago, lurrez eta adar zatiez betetzen da eta inork garbitzen. Bertatik, oinezkoak eta kotxeak doaz eta ondorioz batzuetan oinezkoentzat ez da tokirik geratzen. Mendia erortzen ari da eta errepidea geroz eta txikiagoa da, batez ere euria egiten duenean. Bide hori garbitu beharko litzatekeela adierazi dute bizilagun batek eta beste batzuek bat egin dute bere ekarpenarekin.* Udalak adierazi du, bertaratuko eta egoeraz arduratuko direla.
Paradoreko parkinean garbiketa lanak	*Paradoreko parkineko zona garbitzeko eskatu dute* Abisua pasako dute.
Argiteria	*Argiteria aldatzearena, aspaldi eskatzen den ekarpen bat da eta ez dira aldatzen. Toki asko oso ilun daude eta segurtasun falta dagoela adierazi du bizilagun batek.* Udala kontziente da eta dagoeneko udal gobernuko planean kontenplatua dago argiteria guztia led sistemagatik aldatze eta bide batez eremuak errebisatzea. Baina honek denbora daramala adierazi du. Hernani osora iritsiko da.

INGURUMENA	
Lorezaintza eta jardinak	*Bizilagun batek jakin nahi du ea lorezaintza eta jardinen mantenuan ardura nork duen, ea azpikontratatutako enpresa bat den edo zer. Askotan enpresa honek bere lanak egiterakoan bertan sortutako hondakin guztia hor uzten du eta oso zikina geratzen da ingurua.* Gaur egun, lorezaintzaren ardura duen enpresarekin arazoak izan dituzte eta orain lizitazio berria aterako da zerbitzuan hobekuntzak eginez eta zerbitzuaren nondik norakoak hobeto zehazten. Izan ere, bizilagunak dion bezala, egungo enpresak mantentze lanak egiterakoan, askotan ez dute sortzen duten hondakina jasotzen eta hau arazo bat izaten ari da auzo askotan. Gainera, bestelako lorezaintza filosofia bat ezarri nahi dute Hernanin, bioaniztasuna sustatu eta naturarekiko errespetuzko lorazaintza bat aldarrikatu nahi da. Honekin batera ere, garbiketa enpresarekin ere harremanetan dago udala, jardinen eta inguru berdeen zonak ere garbitu behar dituztela eta beraien zerbitzupean ere badaudela. Hala ere, lizitazio berrian zerbitzuaren inguruko zehaztapen eta hobekuntza gehiago zehaztu dira, aurrekontua ere handituz. Beraz zerbitzua hobetuko dela espero dute.
Arratoiak eta labezomorroak	*Bizilagunak kezka adierazi du bioaniztasunaren eta espazio naturalen hedatzearen ideiarekin, honek arratoien areagotzea eragin dezakeelako.* Udalak adierazi du, hau lantzeko enpresa bat dagoela kontratatua eta aurtengo aurrekontua %10 igo dela bai arratoi zein labezomorroen kontrako tratamenduak egiteko. Gainera, Hernanin beste herrietan ez bezala, enpresa honek 2 astetik behin mantentze lanak egiten ditu auzo eta espazio espezifikoetan. Egia da herriguneetan batez ere, mugatua dagoela pozoina erabiltzea, eragite zonak murrizten ari dira. Baina honen aurrean Hernaniko 10zona ezberdinetan tranpa berri batzuk instalatu dituzte beraz kontziente dira gertatzen ari denaz eta neurriak artzen ari dira. Adierazitako tranpa hauek funtzionatu ezkero beste txoko batzuetan ere aplikatuko dituzte, eragite eremua zabalduz.
Arratoiak eta konpost etxolak	*Aurreko ekarpenari lotuta, konpost etxolak arratoiez beteak daudela adierazi du eta honen aurrean zerbait egitea egin beharko litzatekeela.*

	Orain jartzen ari diren konpost etxolak hermetikoagoak dira eta ez dago zirrikiturik sartzeko. Lehen egurrezkoak ziren eta hau elementu naturala den heinean beroa eta humedadearen ondorioz zirrikitu gehiago sortzen ziren arratoiak sartzeko baina egungo modeloarekin ez. Berdina tenperaturarekin, lehen konposta berotzen zen baina oraingoekin hermetikoak izanik, tenperatura hobeto mantentzen da.
Arratoi eta labezomorroak	*Ez dakite zer gertatzen da baina Karabel, arratoi eta labezomorroz beteta dago. Bizilagun batek lehengo astean 3 aurkitu zituen. Gainera, etxeetara igotzen ari dira eta izugarrizko arazo bilakatzen ari dira.* Alkateak adierazi du, omen lur mugimendu batzuk egon direla eta ondorioz ateratzen ari direla. Bizilagunei adierazi diete ere, horrelako kasuetan zerbitzu publikoetara deitzeko eta zein gunetan topatu dituzten adierazteko, hauek zuzenean enpresarekin jarriko direla harremanetan bertara joateko eta ahal duten tokietan tranpak jarriko ditzaketela. Gai honen bueltan egia da muga bat dagoela, udalak eremu publikoan bakarrik eragin dezake, arazoa etxebizitza pribatu batean badago ezin du asko egin. Hala ere, kalean bada udalarekin harremanetan jartzeko eskatu du Udalak. Gai honen inguruan kezka handia dago auzoan eta harremanetan jarriko dira elkarrekin gaia landu ahal izateko. Berdina labezomorroekin. Udalak konpromezua hartu du Karabelen fokoa non egon daitekeen identifikatzen laguntzeko.
Pilen edukiontzia	*Elizatxon, 2024ean, udaran pilen edukiontzia lurrean botata zegoen, partea jarri zuen eta handik denbora batera, udaletik erantzuna jaso zuen, edukiontzia jaso eta berria jarri zutela esanez. Baina hori gertatu ez zela dio bizilagunak. Jaso zuten baina ez zen berririk jarri.* Udalak adierazi du, erantzuna jaso bazuen egingo zutelako izango zala, agian jaso dute baina ez dute berria jarri.
Zuhaitz gehiago	*Portutik Karabelera doan bidetik ez dago zuhaitzik eta udaran bero asko egiten duenean oso desatsegina da eta pena bat da. Zuhaitzen bat jartzeko aukera legokeen galdetzen du bizilagunak.* Hor desjabetze batzuk egon ziren eta behin bankutik atzera baliteke terreno batzuk pribatuak izatea hala ere aztertuko dute eta aukera badago planteatuko da.

Isurien neurketa	*Bizilagun batek galdetu du eta neurketetan zer den neurtzen dena. Manerren kasuan esaterako, residuo solidoa girora bota izan duen enpresa bat izan da eta ingurua kutsatzen duela adierazi du, espazio ezberdinak beltz-tuz… . Azken finean kontrola eramatea eskatzen du, izan ere Hernanin, enpresa kimikoak, papelera eta bestelako enpresak daudela eta gerta liteke airea ondo egotea baina beste elementu batzuk isurtzen ari direla. Beste bizilagun batek ere bat egin du honekin eta zehaztu du papelerak ere noizbehinka airera gauzak isurtzen dituela.* Alkateak dio kezka hau ere beste auzoetan adierazi dela. Honen eskumena Eusko Jaurlaritzarena omen da beraz Udaletik beraiekin harremanetan daude eta jarraipena egiten dute eta egiten jarraituko dute.
Garbiketa kamioiaren abiadura	*Garbitaniako kamioiari abiadura jaisteko abisua pasatzea eskatu dute, askotan oso azkar doa.* Jasota geratzen da eta abisua pasako dute

UDALTZAINGOA	
Autobusa	*Bizilagun batek adierazi du, Elizatxon (16-18 portalen artean) autobusa pasatzen denean azerara igotzen omen da, horrela doa kale bukaera arte eta arketa eta alkantarilaren gainetik pasatzen da izugarrizko soinua eginez. Berdina gertatzen da goizeko 3tan zakarraren kamioiarekin. Alde batetik, autobusak azerara ez igotzeko zerbait egin beharko litzakeela adierazi du eta bestetik, arketa eta alkantarila konpontzeko eskaria egin zuela dio, udalak konpondu zuenaren erantzuna bidali zion baina horrek berdin jarraitzen omen du.* Udalak adierazi du, erantzuna jaso bazuen egingo zutelako izango zala, seguruena udal zerbitzuetako langileek ez dute pentsatzen autobusa horien gainetik pasako denik eta normalean alkantarila zein arketak ez daude diseinatuak pisu handiko garraioak pasatzeko gainetik, beraz konponduko zituzten baina betikoak jarriz. Horrelako kasuetan, tapetan edo goma moduko bat jarri beharko litzateke, hala ere hemen arazoa autobusa azeratik joatea litzateke, hau zergatik gertatzen den identifikatzea litzateke interesgarriena, beraz aztertuko dute.

Abiadura	*Portu bidean, txirrindarekin arazoa dago, kartelak daude 30km/h muga markatzen dutela eta jende asko txirrindakin abiadura handiagoan joaten da, gainera asko txirrinda elektrikoak izaten dira eta hauek gaitasun gehiago dute abiadura handian joateko. Bizilagun hau bertatik txakurrarekin paseoan ibiltzen da eta oso arriskutsua dela dio. Txirrindek txirrina izan beharko luketela dio, autoek bozina duten bezala eta zure ondotik pasatzerakoan jotzeko ardura dutela baina ez dutela egiten. Beraz eskatzen du udaltzaingoa bertaratzea eta kontrolatzea.* Jasota geratzen da.
Aparkalekuak	*Portuko sarrera, ofizialki bi zentzuetako errepidea da. Bertan bizilagunek aparkatu egiten dute eta hau ofizializatzeko eskatzen dute, bertako aparkalekuak pintatzeko, horrela udaltzaingoak ez du zertan multarik jarri behar. Edo bestela espaloia bi aldetan egon beharrean bakarrean jarri aparkaleku gehiago sortuz. Azken finean ofizialak ez diren horiek ofizializatzea eskatzen du bizilagunak tokiak pintatuz.* Udalak adierazi du hau landu eta elkarrekin hausnartu beharreko gai bat dela, izan ere, bertan aparkatzea debekatuko da. Kotxeak bertan egonda ezin omen dira dimentsio handiko garraioak pasa, hau da anbulantzia edota sute baten kasuan, bonberoen kamioia. Beraz legea betez pasaleku horrek libre egon behar du emergentzia kasuetarako, irisgarritasunagatik. Kontziente dira eta bizilagunak horrela adierazi du, aparkaleku horiek kentzen badira auzoan kriston arazoa egongo dela gai honen bueltan. Honen aurrean lanean ari da udala eta auzotarrekin lantzeko aukera planteatu da.
Bisibilizazioa hobetzeko ispilua	*Balantxako maldako bisibilizazioa dela eta, ispilu bat jartzea proposatzen du bizilagun batek, datorrena ikusi ahal izateko eta bisibilizazioa hobetzeko. (karabeletik balantxara sartzeko horretan) Ekarpen hau ez omen da berria urtero egiten da eta hau betetzea sinplea dela diote.*

HIRIGINTZA	
Karabeleko parke estaliaren proiektua	*Karabeleko parke estaliaren proiektua udalak bukatutzat ematen du eta bizilagun batek adierazten du ezetz. Aurrez diseinatutako proiektua kontuan izanik, banku batzuk falta omen dira. Planoak dituzte eta obra ez dago osatuta. Beraz, hau bukatzeko eskaria egiten dute.* Udalak asko eskertu du ekarpena, ez dira konturatu eta enpresarekin hitz egingo dute.

3. ITXIERA

Ekarpenen tartearen ondoren, Farapik hitz egindakoa borobildu du eta honako gako nagusiak nabarmendu ditu:

- Garbiketa eta herri lanen inguruko ekarpenekin abiatu da bilera, oso ekarpen zehatzak egin dira eta udalak ere asko eskertu du eta hau egitearen garrantzia adierazi du, izan ere askotan beraiek ez dute toki guztietako errealitate espezifikoa ezagutzen.
- Kezka handia eta konpartitua izan da ere arratoi eta labezomorroen presentzia handia. Udala ere honen lanketan dabil eta auzotarrekin elkarlanean aritzeko aukera identifikatu da.
- Kezka handia ere kontaminazio akustikoa eta isurien gaiagatik, esan honen kontzientzia dagoela eta udalak fokoa honetan duela jarria eta saiatzen dira honen jarraipena egiten.
- Beste auzoetan bezala, aparkalekuak kezka handia sortzen du, Udala kontziente da honetan egon daitekeen arazo espezifikoaz eta hau lantzen ari dira eta identifikatzen da badaudela honetan eztabaida eta erabakitze puntu batzuk eta agian hauek topaleku izan daitezke udala eta auzotarren artean, elkarrekin batera lantzekoak.
- Itxiera emateko ere, eskertu aurrez egindako ekarpen guztiengatik, bai maila indibidualean zein kolektiboan auzo elkarteen bitartez egindakoengatik. Asko jaso dira eta hau oso garrantzitsua da benetan horrelako espazioak eraginkorrak izateko.Egin diren ekarpenak **aktan jasota** geratuko direla gogorarazi zaie bertaratutakoei.

Amaitzeko, alkateak Udalaren komunikazio-kanalak gogorarazi ditu, urtean zehar erabili ahal izateko: aurrez aurre, telefonoz eta Internet bitartez. Eskerrak eman dizkie partaideei etortzeagatik eta saioa euskaraz egiteko aukera emateagatik.

4. FITXETAN JASOTAKO EKARPENAK

Saioaren amaieran, bizilagun batzuek idatziz adierazi dituzte bestelako proposamen eta kezkak, banatu zaien fitxa batean.

1) Udal arduradunek egin duten aurkezpenetik zerk piztu dizu arreta? Zer dela eta?

- Trafikoa: kotxe gehiegi daude espaloiaren gainean eta abiadura handian.
- Portu-Urnieta tramoan txirrinduek ez dute txirrinik jotzen, abiadura handian doaz eta modu txarrean aritzen dira. Seinalean jartzeko beharra eta larunbat goizetan udaltzaingo bat ordenantza bete dadin eskatzeko

2) Zeintzuk dira zure kezka edo behar nagusiak momentu honetan?

- Elize 43-44, barrio de arriba: limpiar la acera

3) Ba al daukazu auzorako proposamenik edo behar berriren bat nabaritzen al duzu?

- Karabel:
    - Zubipeko aparkalekua konpondu, zuloak tapatu eta marrak pintatu
    - Banku batzuk oso zikinak daude
    - A15aren zarata
    - Ibaia zikina dago eta zuhaitzek oztopo egiten dute
    - Balantzako ura eta ispilua: garajetik ateratzen diren kotxeek, patineteek, bizikletek… ez dute ikusten

4) Udalak martxan dituen politika eta neurrien artean zeintzuk jarriko zenituzke balioan?